## OSASUN SAILA

## Zk-2673

ERABAKIA, 2003ko martxoaren 13koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Agiri Klinikoen Batzordea sortu eta eginkizunak ematen dizkiona.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera eta kontuan hartuta Estatutuon edukiak jarduera zehatzen bitartez garatzearen garrantzia, «Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Agiri Klinikoen Batzordea» izango delakoa sortu eta eginkizunak emateko proposamena ontzat eman da.

Proposamena Administrazioko eta Kudeaketako Erakunde Zentraletik dator, zuzendari nagusiaren eskutik, orain sortuko den Batzordeari emango zaizkion eginkizunak kontuan hartuta eta 12.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko. Artikulu horren arabera Erakunde Zentralari dagokio «Aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak ematea hurrengo gai hauek direla–eta: zerbitzu–erakunde bakoitzaren aurrekontuak eta programazio–funtzioak; antolamendua eta giza baliabideak; kanpoko harremanak; informazio eta komunikazioko sistemak; laguntza juridikoa; finantza–kudeaketa; baliabide materialak eta zerbitzu laguntzaileak kudeatzea; zerbitzuen jarraipena, kontrola eta ikuskaritza; interes orokorreko estatistika; eta argitalpenak».

Proposamena aztertuta, jarduera zehatz hau aipatu Estatutuen 4.1 artikuluan adierazten den ente publikoaren ahalmenaren barruan sartu behar da; izan ere, artikulu horren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak «nortasun juridiko berezia eta jarduteko gaitasun osoa dauzka, bereak dituen helburuak eta xedeak betetzeko»; eta ulertzen da gaitasun horri esker, sustapenari dagozkion jarduerak burutzeko gauza izango dela batez ere «informazioa etengabe hobetzeari» dagokionean 3.b artikuluak dioenaren arabera.

Beraz, esandakoarekin bat etorriz, Administrazio Kontseilu honek azaldutakoa betetzeko eta aipatu Estatutuen 8.5 artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliatuz, ondorengoa

ERABAKI DU:

***Lehenik.–*** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Agiri Klinikoen Batzordea sortzea, ondoren zehazten diren eskurantzekin:

a) Erakunde Zentraleko Zuzendaritza Nagusiari eta Dibisioko Zuzendaritzei aholkularitza ematea agiri klinikoen alorrean.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-2673

ACUERDO de 13 de marzo de 2003, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se crea y se asignan funciones a la Comisión de Documentación Clínica de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

A la vista del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud y considerando la importancia de desarrollar su contenido a través de actuaciones concretas se ha valorado positivamente la propuesta de creación y asignación de funciones a la que se denominará «Comisión de documentación Clínica de Osakidetza-Servicio vasco de salud».

La propuesta nace de la Organización central de administración y gestión corporativa, a través de su Director General, en consideración de las funciones que se le van a asignar a la Comisión que ahora se crea y en cumplimiento del mandato del artículo 12.3, a cuyo tenor corresponde a dicha Organización central «suministrar servicios comunes de asesoramiento y apoyo técnico en relación con las funciones de programación y presupuestación de cada organización de servicios sanitarios, organización y recursos humanos, relaciones externas con terceros, sistemas de información y comunicación, asistencia jurídica, gestión financiera, gestión de medios materiales y servicios auxiliares, seguimiento, control e inspección de servicios, estadística para fines de interés general y publicaciones».

Examinada la propuesta, esta actuación concreta ha de subsumirse en la capacidad del ente público contemplada en el artículo 4.1 de los referidos Estatutos Sociales, ya que, a tenor del mismo, se reconoce para Osakidetza-Servicio vasco de salud «personalidad jurídica publica diferenciada y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines»; y se considera que, con ella, se pretende dar debido cumplimiento a aquellas actuaciones que se refieren a la función de promover «especialmente la mejora continua de los niveles de información» prevista en el artículo 3.b)

Y, por tanto, de conformidad con la exposición que antecede, este Consejo de Administración, para debido cumplimiento de los expuesto y en virtud de las competencias atribuidas al mismo en el artículo 8.5 de los referidos Estatutos Sociales, viene a adoptar el siguiente

ACUERDO:

***Primero.–*** Crear la Comisión de Documentación Clínica de Osakidetza-Servicio vasco de salud con las atribuciones que a continuación se hacen constar:

a) Asesoramiento a la Dirección General y Direcciones de División de la Organización Central en materia de documentación clínica.

b) Atentzio espezializatuko nahiz lehen mailako atentzioko Zerbitzu erakundeen kontsultoretza, eta asistentzia sare osoko profesional eta zerbitzu klinikoena.

c) Osasun Saila eta bestelako erakundeekin batera lankidetzan aritzea dokumentazio alorrean berariazko araudiak garatzeko eta aplikatzeko.

d) Historia kliniko elektronikoaren alorrean eta agiri klinikoekin zerikusia duten beste alderdi batzuen inguruan etorkizunerako estrategiak finkatzen parte hartzea.

*Bigarren.–* Batzordea ente publikoaren kide anitzeko organo modura arituko da bere eraketako lehen bileran ezartzen denaren arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen II. tituluko II. eta III. kapituluetan xedatutakoa betetzeko.

Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzarekiko mendekotasun hierarkiko eta funtzionala izango du. Bere funtzioen garapena errazteko, egokitzat jotzen diren lantaldeak sortu ahal izango dira bere barnean eta taldelan horren emaitzek Batzordearen onarpena beharko dute.

*Hirugarren.–* Alor honetan Batzordeak betetzen dituen eginkizunak indarrean dagoen legeriaren barruan burutuko dira eta, erabaki hau hartzen den unean, Osasun Sailari atxikita dagoen Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordearekin koordinatuta.

*Laugarren.–* Helburuak eta lan sailkapena errazago ezartzeko, bi azpibatzorde sortuko dira Agiri Klinikoen Batzorde honen barnean: atentzio espezializatuko azpibatzordea eta lehen mailako atentzioko azpibatzordea; organigrama, ondorengoa izango da:

Batzordeko partaide izango direnek zerbitzu erakunde desberdinak eta erakunde zentrala ordezkatuko dituzte. Dena den, batzordearen konposizioa heterogeneoa izango da zerbitzu desberdinen eta profesionalen ordezkatzea eta diziplina anitzeko lana errazteko.

Sorturiko batzordearen partaideak edota euren ordezkoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentraleko Asistentzia Sanitarioko Dibisioko zuzendariak izendatuko ditu. Lehendakaria eta idazkaria batzordeko bi kide izango dira eta Asistentzia Sanitarioko zuzendariak izendatuko ditu horiek ere.

Erabaki honek ondorioak izango ditu erabakia hartzen den egunetik aurrera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzearen eta batzorderako izendatutako kideei egingo zaien jakinarazpenaren kalterik gabe.

Vitoria–Gasteiz, 2003ko martxoaren 13a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

b) Consultoría de todas las organizaciones de servicios, tanto de atención especializada como de atención primaria, y de los profesionales o servicios clínicos de toda la red asistencial.

c) Colaborar con el Departamento de Sanidad y otras instituciones en el desarrollo de normativas propias en materia de documentación y en su aplicación.

d) Participar en el establecimiento de las líneas estratégicas futuras en materia de historia clínica electrónica y otros aspectos relacionados con la documentación clínica.

*Segundo.–* La referida Comisión funcionará como órgano colegiado del ente público, de conformidad con lo que se establezca en la primera sesión para constitución de la misma y en cumplimiento de los capítulos II y III del Título II de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La dependencia jerárquica y funcional será de la Dirección de Asistencia Sanitaria. En particular, para agilizar el desarrollo de sus funciones, podrán crearse en su seno los grupos de trabajo que se consideren oportunos, sometiéndose sus resultados a la aprobación de la Comisión.

*Tercero.–* Las funciones que realice la Comisión deberán llevarse a cabo en el marco legal vigente sobre la materia y, al tiempo de dictarse este acuerdo, en coordinación con la Comisión de Valoración, Selección y Expurgo de Documentación clínica adscrita al Departamento de Sanidad.

*Cuarto.–* Para facilitar el establecimiento de objetivos y la distribución de tareas en el marco de esta Comisión de Documentación clínica, se contará con DOS subcomisiones de trabajo: la subcomisión de atención especializada y la subcomisión de atención primaria, cuyo organigrama será el siguiente:

Los miembros que van a formar parte de la comisión representarán a las diferentes organizaciones de servicios y a la organización central. En todo caso la composición de la comisión será heterogénea para facilitar la representación de los diferentes servicios y profesionales y el trabajo multidisciplinar.

Los miembros de la comisión creada o sus sustitutos serán designados por el Director de la División de Asistencia Sanitaria de la Organización Central de Osakidetza-Servicio vasco de salud. El presidente y secretario serán dos miembros de esta comisión y serán también nombrados por el Director de Asistencia Sanitaria.

El presente acuerdo surtirá efectos a partir de la fecha de su adopción, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y notificación personal a los miembros designados para la Comisión.

En Vitoria–Gasteiz, a 13 de marzo de 2003.

El Presidente del Consejo de Administración,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.